

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko maiatzaren 29a. IX. urtea. 2.602. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Eskubide sozialen gutuna bultzatu nahi dute greba orokorrarekin

Azken bost urteetako seigarren greba orokorra da biharkoa, berrikuntza batekin: deitzaileek Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren prozesua indartu nahi dute

Tolosaldean zein Leitzaldean greba komiteak antolatu eta hainbat deialdi egin dituzte aldarrikapenak kaleratzeko; Tolosan eta Leitzan manifestazioak egingo dituzte **03**



Probako zenbait antolatzaile, parte hartzaile eta babesle, atzo Leitzako udaletxean egindako aurkezpenean. I.G.L.

Aldarrikapen kutsua duen mendi erronka, Leitzan

ESAIT taldeak antolatuta larunbatean estreinakoz egingo da Euskal Herria Mendi Erronka; 65 kilometroko luzera izango du mendi lasterketak eta «lehiarekin batera, ofizialtasuna eta festa» izango dira **06**

30 km/h-ra jaitsi dute abiadura muga Tolosako hirigunean

Udalak CO₂ isurketak murriztu, eta autoek eta bizikletek partekatuko dituzten bideetan segurtasuna bermatzea du helburu **02**

25. urteurrena ospatuko du TAKEk

Tolosako Euskal Herria plazan aire libreko kantxa jarritz, saski gaua antolatu dute **07**

Babes zabala jaso du Tolosan etzi egingo den Mundumob ekimenak

Tolosa Zero Zabor taldeak antolatu du, eta 20 gizarte eragile baino gehiagok eman diote atxikimendua **05**

Maiatzak 30 Greba orokorra

Bihar, maiatzak 30, ez da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaririk argitaratuko, egunkariko lantaldeak bat egiten baitu hainbat sindikatuk deitutako greba orokorrarekin. Hurrengo alea maiatzaren 31n argitaratuko da.



HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
 - Farmazia teknikaria
- FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra

Tel.: 943 67 36 29

www.inmakuladatolosa.com

Gaur lehertuko da festa Anoetan

M. Iraola Anoeta

Gaur hasiko dira ofizialki Anoeta-ko jaiak kukuaren jaitzieserarekin. Arratsaldeko zazpitan izango da hori, eta txupinazoa jaurtitziaz, Anoetan euskara ikasten ari diren etorkinak arduratuko dira.

Horren ondoren, danborrada abiatuko da plazatik Loatzoko Musika eskolako txarangarekin batera. 20:00etan, sardina jana izango da plazan, Kuku elkarreak antolatuta. Amaitzeko, Ezten Giro taldearen eskutik erromeria egongo da plazan.

Bihar berriz, greba orokorra-ren ondorioz, herritarren boron-

datezko lanarekin antolatutako ekintzak emango dira aurrera.

Modu horretan, goizeko hamarretan, XVI. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak jokatuko dira. 16:30ean, herriak herriarentzat antolatutako ume jolasak izango dira plazan, eta horien ondoren, txokolatea banatuko da plazan, Osinulo Jolastoki Elkar-teenaren eskutik.

Grebarekin bat eginez, mobilizazioa egingo da plazan 18:30ean. 21:00etan, berriz, saiheskia jatea izango da plazan Ezker Abertzaleak antolaturik. Eta egunari amaiera emateko, 00:00etan, La Jodederak kontzertua eskainiko du.

↓ Egitaraua

MAIATZAK 29, ASTEAZKENA

- **18:55.** Herriko txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute.
- **19:00.** Txupinazoa. Ondoren, kukuaren jaitziera kanpai hotsekin eta segidan, danborrada.
- **20:00.** Sardina jatea plazan, Loatzoko trikitilariek alaituta.
- **23:00.** Erromeria plazan, Ezten Giro taldearekin.

MAIATZAK 30, OSTEAGUNA MOZORRO EGUNA

- **10:00.** XVI. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak.
- **16:30.** Ume jolasak plazan.
- **18:00.** Txokolate jatea plazan.
- **18:30.** Mobilizazioa plazan.
- **21:00.** Saiheski jatea plazan
- **00:00.** La Jodedera taldearen kontzertua plazan.

Larunbatean ospatuko da Jesusen Bihotza ikastolako festa

M. Iraola Amasa-Villabona

Larunbat honetan ospatuko da urteroko Jesusen Bihotza ikastolako festa. 14:00etan hasiko dira ospakizunak, Behar-Zana pilotalekuan jokatuko diren esku pilota eta frontenis partidekin.

16:00etan, mus eta xake txapelketak jokatuko dira Txerminen. Ordu eta leku berean, kros herrikoia izango da. 16:30ean, berriz, ikasleen ikuskizunaz gozatzeko

aukera egongo da ikastolan bertan.

17:00etatik 19:00etara bitarte, argazki eta eskulanen erakusketak ikusgai izango da hirugarren solairuan. Arratsaldeko seietan, pailazoek emanaldia emango dute, eta ikasle eta gurasoentzat berriz, jokoak izango dira.

19:30etatik aurrera, DB3 3. mailakoek antolatutako tonbola, musika eta afari-merienda izango dira.



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Hemendik aurrera ezin izango da 30 km/h-ko abiadura gainditu erdiguneko errepide guztietan. M. IRAOLA

30 km/h-ko gune bilakatuko dira hiriguneko errepideak

CO2 isurketak murriztu, eta auto eta bizikletek partekatuko dituzten bideetan segurtasuna bermatzea da helburua

Mikel Iraola Tolosa

Tolosako hirigunean 30 km/h-ko abiadura muga ezarriko dute errepideetatik doazen txirindularien segurtasuna bermatzeko.

Lehenagotik zenbait eremutan muga hori bazegoen ere, erdigune osoan zehar hedatzea erabaki du udalak. Horrela, trafikoa lasaitzearekin batera, bizikletek errepidera ateratzea bultzatu nahi da, Ibai Iriarte, Tolosako alkatearen esanetan, «bizikleta ez baita aisialdirako tresna soilik, garraio-bide eraginkor, azkar eta osasuntsua ere baita».

Segurtasuna bermatze aldera, txirindulariek errepidearen erditik joan beharko dutela adierazi du Jexux Mari Ugartegi udaltzainak. «Istripu gehienak ikusmen gutxiko lekuetan gertatzen dira, eta errepidearen erditik joanez ekidin daitezke». Ez hori bakarrik, oinezko eta txirindularien arteko istripuak ere saiestu nahi direla esan du udaltzainak.

Abiadura muga, 30 km/h-ra mu-

rriztuko da erdigune osoan, izan ere, Udaltzaingoaren arabera, 50 km/h-ko abiaduran doan ibilgailu batek, 26 metro behar ditu geratzeko, eta 30ean berriz, erdia. «Istripurik gertatuz gero, ondorioak arinagoak izango lirateke».

Eremuak bost sarrera-irteera izango ditu: Gorritiko zubia, Santa Klarako Zubia, Berazubiko sarrera, Araba Etorbideko biribilgunea, eta AHTko lanak amaitzen direnean San Estebanen ezarriko dena.

Dena den, bidegorriak, kontrako noranzkoan doazenez, haurrentzat, eta oro har, errepidera ateratzera ausartzen ez direnentzat, mantendu egingo direla esan du Iriartek. «Ikastetxeak, kiroldegia, etb. bezalako puntuak lotuko dituen izango da bidegorria. Baina ezinezkoa da bidegorriaren bitartez edonora iristea. Eta filosofikoki ere helburua ez luke horrek behar».

Datorren astelehenean, eguraldiak lagunduko balu behintzat, hasiko dira errepideetako pintaketa eta seinaleztapen lanak, eta San Joanetarako prest izatea espero du udalak.

Kutsadura murriztea

Segurtasunaz gain, Tolosa jasangarriagoa egin nahi du udalak. Agenda 21, Mugikortasun plane-

an, PAES-en, eta beste hainbat planetan agertzen den egitasmo hau, mugikortasuna baita kutsaduraren %64aren eragile. «Energia kontsumoa eta CO2 isurketa %20 murriztu nahi ditugu, eta energia berriztagarrien erabilera, berriz, %20ean igoo».

Kontzientziario beharra

Egitasmo honekin, jendearengan ohitura aldaketa bat sustatzea da udalak jarritako beste helburuetako bat. «Geroz eta jende gehiago ibiltzen da bizikletan, gainera Tolosaren orografiak lagundu egiten du. Kondeko aldapa da, erdigunean dagoen aldapa bakarra».

Auto eta bizikleten arteko bizikidetzaren horretarako, baina, norbanakoek, eta batez ere, autoetako gidariek, kontzientziatu egin beharko dutela adierazi du Iñigo Muñoz, ingurumen teknikariak. Hori dela eta, etxeetan nahiz autoetan erabaki honen ezaugarrien berri ematen dituzten triptikoak banatuko dira.

Horrez gain, irailean, mugikortasun astearren barnean, ikastaroak egingo dituzte ikastetxeetan 30 gunearen barnean nola ibili jakiteko, eta herritarrekin mugikortasun mahai ireki bat eratuko da ekimen honen balorazioa egin eta egin beharreko zuzenketak egiteko asmoz.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 5219922

SALGAI

Quad. Suzuki LTZ 400 markako quad-a. 3.500 kilometro ditu, guztiz ekipatua dago eta berria bezala. Interesatuek, deitu 600 75 25 37 telefono zenbakira.
Etxebizitza bi familiarra. Oren-

dainen salgai edo alokairuan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia, egongela-jangela, tximiniak, bi terraza-lorategi eder, trastelekua, garaje bikoitza, eta abar... 145 m². Ikuspegi irekiak eta independentea. Baratza du. Deitu 943654272 edo 661319847ra.



Tolosaldeko LAB eta ELA sindikatueta ordezkariek maiatzaren 30eko greba orokorraren hitzorduak aurkeztu zituzten atzo. A. IMAZ

«Langileen duintasuna» eta «eredu propioa» greba orokorraren ardatzak

Tolosaldean eta Leitzaldean goizez nahiz arratsaldez antolatu dituzte ekimenak, bihar

Asier Imaz

Berrikuntza batekin dator maiatzaren 30eko greba orokorra, azken bost urteetan Hego Euskal Herrian egingo den seigarrena. Berrikuntza hori, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna da. Grebara deitu duten sindikatu abertzaleek eta gizarte eragileek, itun sozial hori ez dute ostegunean bertan aurkeztuko, eratzte bidean dagoen alternatiba baita. Elkarlanean egindako prozesu baten ondorio izatea nahi dute, beraz, eta greba orokorraren ardatzetako bat hori izango da, hain juxtu, prozesu horri bultzada ematea: «Greba orokor honetan urrunago joan behar da, alternatiba eraiki behar da», azaldu dute

Tolosaldeko ELA eta LAB sindikatu abertzaleek.

Leitzan, greba egunean, itun sozial horren inguruko eztabaida antolatu dute Atekabeltz gazte txean. Hainbat gairen artean, «Euskal Herriak behar duen eredu sozial eta ekonomiko propioa» hitz egingo dute, hau da, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaz.

Greba deitzen duten eragileei aurpegia LABeko eta ELAko ordezkariek jarri zieten atzokoan prentsaurrekoan. Hori bai, plaza-ratu zuten testua guztien artean adostua izan zela esan zuten. Hasiaren aipatu eredu sozial eta ekonomiko propioa aldarrikatzearekin batera, «langileen duintasuna» azpimarratu nahi izan zuten maiatzaren 30ari begira: «Bizi dugun egoera ez da krisi ekonomikoaren ondorioa, krisiaren aitzakian martxan jarri diren politiken ondorioa, baizik».

Aldi berean, egoera horrek atzean zer duen argi salatu nahi izan zuten: «Politika hauen helburua herritar

rrak pobretzea eta eskubideak kentzea baino ez da, betikoeak aberasten jarraitzen dutela bermatzeko».

Instituzioen papera aztertzerako unean, grebaren deitzaileek Madril, Gasteiz eta Iruñeko gobernuak aipatu zituzten: «Lehenak inposatu egiten du, eta beste biek inposaketa onartzeaz gain, politika antisozial berdinak eta pobretze masiboa dakartenak ezartzen dituzte. Politika horien norabidea aldatzera behartu behar ditugu, eta modu bakarara berrroka eta mobilizazioa dira».

Irakurketa eta salaketa guztiak laburbiltze aldera, sindikatueta ordezkariek eskakizun zuzena egin zuten: «Euskal Herriko instituzioei exijitzen diegu euren lehentasun nagusi eta bakarra ez dadila izan banka eta multinazional handiak, hemen bizi eta lan egiten duten herritarrek bizi baldintza duinak izatea baino; enplegu duina, kalitateko zerbitzu publiko unibertsalak, eta prestazio sozial egokia».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan, aldarrikapen hauek zabaltzeko eta maiatzaren 30ean kalera irteteak duen garrantzia azpimarratzeko, greba komiteak antolatu dituzte, deialdi ugari batuz eta herriratuz.

Zizurkilen grebarako deialdia

Maiatzaren 30eko greba orokorra girote aldera, Zizurkilen elkarretaratzea egin dute, *Eskubide sozialaren denfentsan murrizketarik ez!* lelopean. Zizurkilko Euskal Herria Bildu izan da deitzailea eta protestarekin bat egin dute Zizurkilgo Huyck Wagner enpresako langileek, TOPA plataformak eta Pedro Mari Otaño Herri Eskolako irakasleek. Azken hauek, LOMCE legeak hezkuntza sisteman eragingo dituen «kalteak» azaldu dituzte, eta TOPAkoek Tolosaldean osasun zerbitzu publikoa lortzeko borrokaren berri eman dute. Azkenik, EH Bilduren ize-nean irakurritako idatzian maiatzaren 30ean egingo den grebarako deia luzatu dute.

↓ Maiatzak 30

HITZORDUAK TOLOSALDEAN

- **05:30.** Pikete informatiboak Usabal kiroldegitik abiatuta.
- **07:30.** Trianguloan elkartuko dira informazioa zabaltzen jarraitzeko.
- **11:30.** Gipuzkoa mailako manifestazioa Donostian. Tolosaldeko zutabea Anoetako estadiotik abiatuko da.
- **18:00.** Tolosaldeko manifestazioa Tolosako Trianguloa plazatik abiatuta.

HITZORDUAK LEITZALDEAN

- **08:00.** Kotxe karabana.
- **Ondoren.** Hamarretako auto-gestionatua, eta Iruñera joateko hitzordua.
- **12:00.** Iruñean manifestazioa.
- **14:30.** Bazkari tertulia Atekabeltz gazte txean. Gaiak: Gutun soziala; CANeko ustelkeria; Leitzala...
- **18:00.** Manifestazioa Leitzan.

GREBAREN ALDE EGIN DUTEN HAINBAT LANTEGI

- **Ariznabarreta.**
- **Ados muntaiak.**
- **Amezketako Udala.**
- **Antalis.**
- **Arteka.**
- **Cadinox.**
- **Cicarsa.**
- **Corenso.**
- **Ebaki Lan.**
- **Etxesa.**
- **Fudike.**
- **Guibe.**
- **Ibarrako Udala.**
- **Iurramendi.**
- **Jaguar.**
- **Laskorain Ikastola.**
- **Leibi.**
- **Munkjsjö.**
- **Proprel.**
- **SAM.**
- **T. Bost.**
- **Tarte.**
- **Tolosako Udala.**
- **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.**
- **Unipapel.**
- **Uranga.**
- **Urbar.**
- **Virlab.**

Ibai Iriarte
Tolosako alkatearekin
**ZUZENKO
ELKARRIZKETA**

Bidali zure galderak:
tolosaldean@hitza.info

edo
@hitzatolosaldea

Ikusi tolosaldea.hitza.info webgunean

Ekainak 4, asteartea
13:00etan



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza info



Xagu artistak sortutako formen bila

Juan Gorritik eta Patxi Laskarainek sortutako lanen erakusketa ikusgai dago Tolosako Fronton jatetxean

Imanol Garcia Landa Tolosa

Artistek artea bizi eta sentitu ohi dute, eta horietako bat da Juan Gorriti. Baserri batean ikusitako gazta batek sortu zion inspirazioa: «Xagu batek, bere beharrak, bere goseak bultzatuta, gazta eskultura bihurtu zuen». Gazta eskatu eta bere etxera eraman zuen, eta hortik sortu da Tolosako Fronton jatetxean dagoen erakusketa. *Xaguak gaztaren bila* izena du erakusketa horrek eta Gorritik berak eta Patxi Laskarain argazkilariak egindako lanekin osatuta dago.

Xaguetan gazta horretan sortutako formekin liluratuta, Gorritik Laskaraini eraman zion, eta honek argazkiak atera zizkion gaztari. «Laskarain niretzat argiaren artista da, itzalarekin artista. Esprikatu nion nola sortu ziren gaztaren formak, eta argazkiak ateratzeko eskatu nion»,



Juan Gorriti eta Tolosako Fronton jatetxean 'Xaguak gaztaren bila' erakusketaren barruan zintzilikatuta dauden bere eta Laskarainen zenbait obra. HITZA

azaldu du Gorritik. «Eta argazki horiekin txoratuta gelditu nintzen».

Argazki horien gainean margo-lanak egin ditu Gorritik, eta leiho batzuk irudikatu ditu, eta horien barruan xaguak marraztu ditu. Horrez gain, collage bat egin du gaztarekin eta beste zenbait objektuarekin eta jatetxera igotzeko eskaileretan zintzilikatu du. Laskarainen argazkiak ere, bere horretan, ikusi daitezke.

Artelanak, jatetxean

Artelan horiek guztiak jatetxearen mahaien inguruan jarri dituzte. Gorritik azaldu duenez, Roberto Ruiz Fronton jatetxeko arduraduna bere laguna da, eta erakusketa bertan jartzea pentsatu zuten. «Zergatik ez, jatetxean jaten ari zaren bitartean erakusketa ikusten egon?», esan du Gorritik, eta ideia horretatik abiatuta hainbat lekutan daude artelanak.

Natura du inspirazio iturri Gorritik eta, askotan ohi duen gisara, sortzeko bere bidea esaldi batean laburtu du: «Sentitu, emozionatu, pentsatu eta gero eskuekin egin». Oraingoan xaguetan gazta batean sortutako formak izan dira bultzatu dutenak artea egitera. Zentzumenak irekita izaten jarraituko du, naturak eskaintzen duena sentitzeko.

Irudia Tolosa



200 EUROKO TXEKEAK, BANATUTA

Martxoko eta apirilko Tolosa & Co Visa txartelaren eskaintzaren 20 irabazleei 200 euroko txekueak banatu zaizkie. Argazkian ikusi daitezke saria irabazi duten zenbait herritar eta baita sariak banatu diren saltokietako ordezkariak ere. Guztiei zoriandu die Tolosa & Co elkarteak. HITZA

Irudia Ikaztegieta



MURRIZKETEN AURKA, PROTESTAN

Ikaztegieta Herri Eskolako irakasleak, gurasoak eta ikasleak astelehenero-astelehenero biltzen dira eskolaren aurrean Hezkuntzan egiten ari diren murrizketak salatzeko. Era berean, eta eskualdeko beste hainbat ikastetxetan egiten duten moduan, LOMCE legearen aurka ere protesta egiten dute. HITZA

Anoetako Udala

Ondo pasa Korputsetan!!

EUSKAL PRESO ETA BIESLARIAK ETXERAT!

Ireki berria!

Namasté
despertando

• Gizoneskoak 14,50 €

• Emakumeskoak: Kolorea + orraztu 28 €

• Rastak

Tel.: 943 047 953 + 691 307 608

Etxeondo auzoa, 7 beheko • Billabona

«Mundua hobera alda dezakegulako» iritsiko da Mundumob Tolosara etzi

20 gizarte eragile baina gehiagoren babesba jaso du Plaza Berrian egingo den ekimenak, eguraldi txarrarekin Zerkausian

Asier Imaz Tolosa

Tolosa Zero Zabor taldeak Mundumob ekimena antolatuta du herrian, etzi, maiatzaren 31n. 18:30etik aurrera, hainbat ekitaldi egongo dira, eta garrantzitsuenak, 19:00etan hasiko dira, koreografiarekin. Aurkezpena atzo egin zuten, eta bertan, egitaraua azaltzeko gain, edukiz jantzi zuten Mundumob: «Helburua herritarren printzipio nagusi baten inguruan biltzea da: Mundua aurrera belaunaldiak jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea daukagu, eta hurrengo belaunaldiak jaso dugun aukera berdinekin uzteko betebeharrak».

Horrelako lanketa batean zergatik hasi diren galdetuta, bi aukera jarri zituzten mahai gainean Tolosa Zero Zaborreko kideek: «Azken urteetako garapenaren eraginez arazo larriak sortu dizkiogu bizi garen mundu honi: beroketa globala, natur baliabideen gehiegizko ustiapena, zabor pilaketa eta abar. Arazo hauen aurre-



Tolosa Zero Zabor taldeko kideek atzo aurkeztu zuten Mundumob. A. IMAZ

an bi jarraera har ditzakegu, baiko-rra edo ezkorra». Euren lehenari heldu diotela esan zuten, hau da, «berandu baino lehen iraunkortasunean oinarritutako mundu bat eraikitzen hasteari».

Mundumob helburu hori lortzeko bidean kokatu zuten, eta kantu koreografia bat dela azaldu zuten: «Baikortasuna eta konpromisoa egongo dira ekimenaren muinean». Maiatzaren 4ean Orendainen hasi zuten bidea Mundumob-ek, eta Tolosara etzi iritsiko da eskualdeko hainbat herri igaro ondoren. Tolosan harrera egiteko prest daude, izan ere, 20 gizarte eragile baino gehiagok eman baitio ekimenari atxikimendua. Hona hemen zerrenda: Jatorkin, TOPA, LAB, Eguzki ekologistak, Bilgune feminista, Ernai, M15 mugimendua, Esait, Samaniego eta Orixeko irakasle

↓ Egitaraua

ETZI, MAIATZAK 31

- 18:30. Haur jolasak.
- Ondoren. Ekitaldi xumea.
- 19:00. Dantzan hasiko dira. Entsegu pare bat egin ondoren, behin betiko koreografia egingo dute.
- Eguraldia. Ekimena Plaza Berriaren egingo dute, baina eguraldi txarra egingez gero, Zerkausian.

batzuk, TAKEko saskibaloi jokalaririk batzuk, Ibarrako Osasun zentroko medikuek batzuk, suhiltzaileak, Udaberri dantza taldea, Oargi, Mularbo, Ekologistak martxan, Bide ertzean, Desordutan, Eneko Haritzaren lagunak, Haitzetan Raju mendiko taldea, Aralar eta Bil-
du.

Nekane Arsuaga • Zero Zabor taldeko kidea

«Hondakinen gaiari tentsioa jaitsi nahi diogu»

A. Imaz Tolosa

Mundumob ekimenaren atzean lagun askoren lana dago, eta horietako bat Nekane Arsuaga (1964, Tolosa) Tolosa Zero Zabor taldeko kidea da.

Gizarte eragile askoren babesba jaso duzue. Nolako erantzuna izan da?

Guztiok harrera oso ona egin digute. Kanpainaren lelo nagusia iraunkortasuna da, ekologiaren oinarri-oinarrira doa, eta mezua jende guztiari iritsi zaio, oso oinarritzakoa delako. Atxikimendua eman dutenak erabat ados zeuden ekimenarekin. Talde handi batzuetan, norbanakoak prest agertu dira izena emateko, baina ez taldearen izenean. Horregatik ez dugu zerrenda luzeagoa osatu.

Hondakinen inguruan dagoen giroak lanketa ez zuten erraztuko.

Giro nahasia dago, eta hain justu, gure helburua tentsioa jaitzea da. Ados gauden gauzak zein diren zehaztu, eta lanean hastea nahi dugu elkarrekin. Orain zabalitzen ari garen mezua hain oinarritzakoa izaki, uko egitea oso zaila dela uste dugu.

Bide horretatik luzatu diozue gonbidapena Patxi Amantegiri, ezta?

Alde batetik politikoak daude, eta bestetik herritarrak. Bizilagunen



A. IMAZ

artearen giro txarra sumatzen genuen, tentsioa. Gai honen eta beste hainbaten gatazkaren inguruan, bizilagunok beti jakin izan dugu elkarbizitza mantentzen. Hondakinen gaiari tonua jaitsi nahi diogu. Nahiz eta ezberdin pentsatu, adostasun batera iritsi gaitezkeela uste dugu.

Nola gonbidatu jendea Mundumob-era?

Nik ere zalantza hori nuen, baina behin probatzean, barruraino sartzen zaizu eta errepikatu egin nahi izaten duzu. Aldarrikapen bat egin nahi dugu, baina giro onean, modu erlaxatuan, ongi pasaz eta umorearekin.

Gipuzkoako Koparen finalean, Intxurreko bi talde

A. Imaz Alegia

Intxurre futbol taldeak bi final jokatuko ditu larunbatean, Donostiako Matigoxotegi zelaian. Infantilen eta kadeteen taldeak Gipuzkoako Kopa irabazteko azken lehiara sailkatu dira, iragan asteburuan finalerdiak irabazi ostean. Infantilek 6-1 gainditu zuten

Zarautz, eta kadeteek, 0-4 irabazi zioten Antzuolari. Finalerdiak gelditu zirenak jubenilak izan ziren, etxean Ekintzaren aurka 2-3 galdutako ostean. Garaipenaren gola luzapen denboran lortu zuten Ekintzakoek.

Finalean infantilek Trintxerpe izango dute aurrean, eta partida 10:30ean hasiko da. Kadeteek, Ma-

riñori egingo diote aurre, 12:30ean hasiko den lehian.

Aurreko astean taldeko arduradunak gustura agertu ziren Intxurreko oro har egin duen denboraldiarekin. Erregional mailako taldeak Gipuzkoako Kopa jokatu zuela jarri genuen Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkarian, baina ez zen horrela, igoera

fasean aritu baitira lehiari, eta bertan, bosgarren postuan amaitu dute.

Denboraldi amaierako jaia

Urteroko ohiturari jarraituz, Intxurre taldeko partaide guztiek denboraldia jai batekin ospatuko dute. Egunarekin zalantza ibili ostean, azkenean larunbat hone-

tan izango dela jakinarazi dute Intxurreko kideek. Ospakizunen ardatza zahagi ardoa izango da, eta beraren inguruan, makina bat kontu ibiliko dira dantzan. Denboraldi amaierako jaia larunbat iluntzean izango da, eta infantilek eta kadeteek garaipena lortuz gero, kopa faltik ez dute izango Intxurrekoek.

MUNDUMOB

Eman hartu nahi duzun mundua

Maitzak 31 Tolosa

19:30ean Plaza Berrian

Malatzak 4 ORENDAIN
ZERO ZABO
DONOSTIA Ekainak 8

Lehia eta aldarrikapena batuko dituen proba hartuko du Leitzak larunbatean

ESAI Tek antolatuta Euskal Herria Mendi Erronka 65 kilometro luzerako mendi lasterketa izango da

Iñigo Terradillos Leitza

Guztia prest dago larunbatean Leitzak Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa hartzeko. ESAI Tek (Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea) antolatuta, estreinakoz egingo da, eta «lasterketaren lehiarekin batera, ofizialtasunaren aldarrikapena eta festa giroa uztartzea» du helburu.

Leitzan hasi eta bukatuko den lasterketak 65 kilometroko luzera izango du, eta 7.000 metroko gain-behera. 07:00etan abiatuko dira lasterkariak, eta 13:00etarako aurreikusitako hasiko direla iristen lehenengoak helmugara. Tartean, Guratz, Gorriti, Arribe, Gaintza, Hirumugarrieta, Albi, Artxueta, Lekunberri, Etxarri, Ireber eta Kornietak igaro beharko dituzte. Maila gorenera Hirumugarrietan (1.431 metro) iritsiko dira. Sei kontrol izango ditu ibilbideak, eta jateko eta edateko hamar gune.

ESAI Tetik azaldu dutenez, Txapelketa Euskal Herri mailakoa izanik Euskal Herri osoko kirolariel emana zaie aukera parte hartzeko. Hala, txapelketa ezberdinak izango dira, banakakoa, KM bertikala edota taldekakoa, esaterako. «Guretzat garrantzitsua izan da kirolariel talde moduan parte hartzea, taldean emakume batek gutxienez egon be-



Joseba Usabiaga eta Monica Grajera parte hartzaileak, Juan Mari Barriola zinegotzia, Itziar Arratibel ESAI Teko ordezkarria, Onintze Bengoetxea kirol zinegotzia, Juan Mari Irastortza antolatzailea eta Asier Arzallus kirolaria, atzo, Leitzako udaletxean egindako aurkezpenean. IGL.

har baitu», adierazi du Martxel Toledo ESAI Teko koordinatzaileak.

Aurreikuspenak beteta

Parte hartzaile kopuruari dagokionez, 500-540ko muga du probak, eta erraz gaituztu du, dortsals guztiak janzteko izena eman baitu jendeak. «Oso gustura gaude, lehenengo urtea izanik izan duen harrera ikusita. 300 parte hartzaile iritsita gustura geratuko ginateke, beraz, pentsa», azaldu du Toledok.

Parte hartzaileen gehiengoa, %90 inguru, Euskal Herrikoak dira, baina badira kanpotik etorriko direnak, Kataluniatik edo Asturiastik kasu. Euskal Herri mailan horrelako lasterketetan punta-puntan aritzen direnak Leitzan izango direla adierazi

dute antolatzaileek. «Badira, era berean, lehiaz harago, ibilbidea egitera joango direnak». Denarik egongo da, beraz.

Sariak maila guztietako txapel-dunentzat banatuko dituzte. Txapela eta garaikurra jasoko dituzte, eta baita, Euskal Herriko txapelduna jartzen duen bereziki eginiko kamiseta. Sariak Leitzako plazan 19:00ak aldera egingo den sari banaketan emango dituzte. Ekitaldi horretan, Donostian egin zen Europako Beteranoen Atletismo Txapelketan Euskal Herriko elastikoarekin irten zirenei omenalditxoa ere egingo die.

Egun osoko festa

Festa ostiralean hasiko da, orduan hasiko baitira dortsalen banaketarekin. Era berean giroa be-

rotzeko, Alex Txikonen bideo emanaldia izango da Leitzako zinean. Hurrengo egunerako, berriaz, egun osoan izango dira ekitaldiak. Haurrentzat euskal jokak eta puzgarriak egongo dira, txosna txiki bat ere jarriko dute jan-edana egiteko, eta materiala erosteko gunea ere izango da. Bazkaltzeko, berriz, 220 lagunentzat paella erraldoia egingo dute Leitzako plazan.

Eta, behin proba bukatuta, eta sari banaketa ekitaldia eginda, festak jarraitzeko erromeria egingo dute. Baina, Leitzan ezezik, giro ederra izango da lasterketa igarotzen den guneetan. Beraz, parte hartzaileekin doazen lagunak eta familiakoek nahiz proba ikustera doazenek egunpasa polita egiteko aukera izango dute.

Hau guztia posible egiteko, lan

handia egin dute antolatzaileek, eta boluntario ugariaren laguntza izan dute: «Iñaki Pazos da txapelketaren antolaketa burua, eta berearekin batera antolaketa lanean, aurretik nahiz egunean bertan, 80-100 lagun inguru ariko dira», azaldu du Martxel Toledok. Laguntzaile horietako asko leitzarrek edo inguruko herrietako-



«Leitza oso egokia da lasterketa egiteko, eta Nafarroan egitea ere funtsezkoa da guretzat»

MARTXEL TOLEDO
ESAI T

ak dira. «Lan handia da, eta guztien laguntza eskertu beharra dago, bestela ezinezkoa baita horrelako proba bat egitea».

Udalaren aldetik ere proiektua aurreratu zuten lehen egunetik jaso dutela babesa eta laguntza nabarmendu du ESAI Teko koordinatzaileak. Halaber, Leitzako Udala «oso gustura» dago proba Leitzan egingo delako, «herria ezagutarazteko balioko du jende ugari etorriko baita egun horretan».


Hurrengoak ere Leitzan

Jarraipena izateko jaio zen Euskal Herria Mendi Erronka, eta lehenengo urteko harrera ikusita, eta guztia espero bezala joaten bada, datorren urtean bigarrena egingo litzateke. Gainera, bigarrena ere Leitzak hartuko luke: «Leitza eta bere inguruko ikuspegiak hartu ditugu batetik kontuan, horrelako lasterketa bat egiteko oso egokia baita, eta bestetik, kokapena, guk beti aldarrikatzen dugun Euskal Herriaren ikuspegitik. Nafarroan gisa honetako proba garrantzitsu bat antolatzea ere funtsezkoa iruditzen zaigu», esan du Martxel Toledok.

↓ Euskal Herria Mendi Erronka

DATUAK

- **Proba.** Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa.
- **Eguna.** Ekainak 1.
- **Lekua.** Leitzako plazan izango da irteera eta helmuga.
- **Parte-hartzaileak.** 18 urtetik gorako 500-540 gizon-emakume.
- **Txapelketak.** Banakako EHME Txapelketa, Klub Mailako EHME Txapelketa, KM Bertikala EHME Txapelketa, Euskal Herriko Banakako Txapelketa, Klub Mailako Euskal Herriko Txapelketa.
- **Irteera.** 07:00.
- **Luzera.** 65 kilometro.
- **Ibilbidea.** Leitza, Guratz, Gorriti, Arribe, Gaintza, Hirumugarrieta, Albi, Artxueta, Lekunberri, Etxarri, Ireber, Kornietak, Leitza.



- **Gainbehera guztira.** 7.000 metro.
- **Gehieneko altuera.** Hirumugarrieta (1.431 m.).
- **Gutxieneko altuera.** Arribe (222 m.).
- **Gehieneko denbora.** 14 ordu.
- **Pasagune kontrolak.** 6
- **Kontrolak denborak.** Gaintza (16 km/11:00); San Mi-

- gel (31 km/14:00); Lekunberri (43 km/16:00).
- **Jan-edan guneak.** 10.
- **Likido guneak.** Gorriti (7 km), Ata (38), Iontza (49), Kornietak (60).
- **Gune osoak.** Gaintza (16 km), Unagako putzua (23), San Migel (31), Lekunberri (43), Ireber (54), Leitza (65).

EGITARAUA

- **Maiatzak 31, ostirala**
- **18:00-20:00.** Dortsalen banaketa, Leitzako plazan.
- **18:00-20:00.** Korrikalarien azoka.
- **20:00.** Alex Txikonen bideo emanaldia izango da ikusgai, Leitzako zinean.

Ekainak 1, larunbata

- **05:00.** Dortsalen banaketa.
- **06:15.** Korralitua.
- **06:45.** Aurreksua.
- **07:00.** Irteera.
- **10:00.** Haurrentzat jolasak.
- **13:00.** Lehen korrikalariak.
- **14:00.** Herri bazkaria.
- **19:00.** Sari banaketa.
- **20:00.** Erromeria.

Saski gauarekin abiaraziko ditu 25. urteurreneko ospakizunak, TAKEk

Ekainaren 8an, aire libreko saskibaloia kantsa bilakatu da Euskal Herria plaza, saski gaua ospatzeko

I. Urkizu

Tolosako Adiskideen Kirol Elkarteak, TAKEk, 25 urte betetzen ditu aurten, eta behin denboraldia amaituta, antolatu duten egitasmo nabarmenetako bat aurkeztuz abiarazi dituzte ospakizunak. Horrela, datorren ekainaren 8an, saski gaua izango da Euskal Herria plazan.

Lehendik ere burutu dituzte jada, hainbat jarduera, urteurrenaren harira; besteak beste, Sito Alonso entrenatzailea Tolosan izan zen duela egun batzuk. Horreez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko ligara igotzeko Final Four fasea Tolosan ospatzea lortu zuten urtemuga ospatzeko, eta gainera, TAKEk fase horretara iritsi eta igotzea lortu du.

Taldeko Andoni Gorostidik azaldu duenez, hiru jarduera mota antolatu dituzte: «Egitasmo batzuk herriari begira antolatu ditugu, eta beste batzuk taldeki-deoi begira, barrukoak. Azkenik, TAKEtik pasa diren jokalariek guztiak ere gogoan izan ditugu». Honenbestez, ekainaren 8an saski gaua izango da, tolosar nahiz kanpotarrentzat, «saskibaloiaz kalean gozatzeko, formatu berri eta dinamiko batean».

4x4 partidak izango dira, eta gizonetako nahiz emakumezko taldeak goi mailakoak izango dira. Horrela, Gipuzkoan goi mailan dabilzan TAKE, Iraurgi, Easo eta Zarautz taldeetako jokalariek etorriko dira gizonetako dagoeniaz. Emakumezkoetan, be-



Denboraldia amaituta aurkeztu dituzte 25. urteurreneko jarduerak. I. URKIZU

rriz, Euskal Herri osoko lau talde hoberenak ariko dira saski gauean: Iruñeko Ardoi, Bera Bera UPV, Caja Vital UPV eta Gernika.

18:00etatik hasita, Euskal Herria plaza kaleko kantsa bilakatu da, eta 02:00ak arte luzatuko da saski gaua: «Ikusle mota guztienezko jaia izan daiteke, atsendaldietan saskibaloiarekin loturiko jarduerak prestatu baititugu bertararentzat; esaterako, haurrentzako puzgarriak». Partidak, berriz, 20 minutukoak izango dira, eta 10 segundoko erasoak egin ahal izango dituzte; formatu azkarragoa izango da, beraz: «Orain arte ikusi ez den formatu bat da, dinamikoagoa».

Herriko jokalariek lanean

1988an TAKE sortu aurretik ere, baziren saskibaloia taldeak Tolosan; ikastetxei loturiko taldeak ziren, ordea, eta taldeko sortzaileek, herri mailan zerbait egiteko asmoz abiarazi zuten Tolosako Adiskideen Kirol Elkarte. Andoni Gorostidik azpimarratu duenez, «duela 10 urte inflexio puntu

bat izan zuen taldeak, eta krisi txiki bat ere horrekin batera. Izan ere, talde gutxi zeuden, eta kanpoko jokalariek asko ari ziren TAKE».

Egoera honen aurrean, taldeak ikuspuntu aldaketa bat gauzatu zuen, eta herriko jokalariek parte hartzea sustatzen hasi ziren, sas-

Gaur egun 250 jokalaririk inguru aritzen dira saskibaloian, TAKEko 18 taldeetan

kibaloia Tolosan errotzeko asmoz. Gaur egun, 18 talde daude guztira, eta 250 jokalaririk inguru aritzen dira entrenatzen. Gainera, aipatzekoa da orain 6 urte emakumezkoen saskibaloia indartzeko TAKEk egin zuen apustua: «Gaur egun kategoria bakoitzean emakumezkoen talde bat dugu, eta epe motz edo ertainera, nesken taldeek lorpen garrantzitsuak eskuratzea da gure erronka. Lanean jarraitu behar dugu beraz».

→ Laburrak

Kuadrilla eguneko bazkari txartelak salgai

GIZARTEA ▶ Tolosako San Joan jailetan, ekainaren 22an izango da, aurten, kuadrillen eguna. Euskal Herria plazako bazkaria joateko, bost euroren truke salgai jarriko dituzte txartelak, Orbelat tabernan. Etzi, 19:00etatik 21:00etara erosi ahal izango dira, eta larunbatean, berriz, 11:00etatik 13:00era. Datorren astean ere erosi ahal izango dira txartelak, ekainaren 7an 19:00etatik 21:00etara, eta ekainaren 8an 11:00etatik 13:00era.

Gastrologging saioa, gaur, Bidaierien Txokoan

GIZARTEA ▶ Surfa eta gastronomia uztartzen dituen Gastrologging proiektua izango da, gaur, Antxon Bandres bidaierien txokoan. Sei ataletan egingo dako ikus-entzunezko lan honek, surferako eremuak eta bertako gastronomia ditu oinarri. 2012an eginiko filma da hau, eta Gastrologging proiektuaren azalpenaz gozatu ahal izango da, gaur, 20:00etatik aurrera, Antxon Bandres Bidaierien Txokoan, euskal surflari hauen eskutik.

Oargiren irteera ekaineko lehen astebururako

MENDIA ▶ Oargik, Irungo Erlaitz mendi elkartearekin, elkarlanean irteera antolatu du ekaineko lehen astebururako, Musales eta Llana Cantal mendietara. Irteeraren prezioa 55 eurokoa izango da bazkideentzat, eta bazkide ez direnentzat, berriz, 62 eurokoak federatuentzat eta 72 euro federatu gabeentzat. Izena 688 69 86 42 telefonon edo info@oargi.org-n eman daiteke, eta bihar da azken eguna. Izena ematerakoan, 20 euro sartu beharko dira Laboral Kutxako 3035 0028 11 0281141038 kontuan.

Black Market arte azoka antolatu du BOX.Ak, larunbaterako

Artearen hamaika adierazpenez gozatzeko aukera izango da San Esteban auzoan, egun osoz

I. Urkizu

Gastronomia, artea, bigarren eskuko produktuak, musika, ... Ohiko azoka batek bil ditzakeen elementu guztiak, baina arteari begira, Black Market azoka antolatu du BOX.Ak, larunbat honetarako.

Hainbat sortzaileen lanak, tattoo artistak zuzenean, marka berriak, surf taulak, bizikletak, musika zuzenean nahiz janaria eskuragarri izango dira, 10:00etatik 22:00etara bitarte; egun pasa egiteko aukera izango da, beraz. 22:00etatik, aurrera, gainera, 00:00ak bitarte, Dja eta dantzaldia izango dira, postuak itxi ondoren.

BLACK MARKET

- **10:00.** Postuen eta karpenera irekiera. Tattoo-ak Erme Colladoren eskutik, Vintage, Bizikletak, bigarren eskuko artea, arropa, skateboard, garagardoa, tarrasa eta surf print-a.
- **12:00-15:00.** Bazkaria, 4,50 euroren truke, Mamita's Fooden eskutik. Menua: frijoleak, oilaskoa saltsan, arroz, saltsa gorri mina eta ogia.
- **16:00-22:00.** Marie Deauren eskutik musika zuzenean.
- **19:00-22:00.** Afaria, 3 euroren truke (hot dog night).
- **22:00.** Postuen eta karpenera itxiera.
- **22:00-23:00.** DjicePNTZ-Kren eskutik musika.
- **23:00.** Musika dantzaldi goxoa.
- **00:00.** Black Market 2013ko amaiera izango da.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



14°
10°

GOIZA EURI
ARRATSALDEA EURI
BEROENA 16°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Lehen Hezkuntzako ikasle sarituak, atzo, Gureako aretoan. MIKELIRAOLA

Literaturak eta bertsolaritzak ziurtatuta dute etorkizuna, Amasa-Villabonan

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ipuinak eta bertsoak izan dira sarituak

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Urteroko ohiturari jarraituz, ikasturtea amaitu baino lehen Amasa-Villabonan Bertso eta Ipuin Lehiaketako sariak banatu dituzte, Gurea zineman. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek txiki utzi zuten aretoa atzokoan.

Oholtza gainera igo eta bertso bidez jakinarazi zituzten irabazlearen izenak. Lehen hezkuntzako 3.

eta 4. mailako ikasleen artean, ipuin sarituak, Eñaut Aranburu, Oier Aranburu eta Maitane Iraolarenak izan ziren. 5 eta 6. mailako artean aldiz, Sara Iriarte, Asier Arestin eta Ane Villenak izan ziren saria jaso zutenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1 eta 2. mailako ikasle sarituak Eider Arruabarrena, Alba Fernandez eta Maddalen Ugalde izan ziren. 3 eta 4. mailako artean, berriz, Ane Lorence, Amaia Arestin eta Garazi Urkola.

Bertso sarituak

Ipuinez gain, ikasleek bertsolari-tza ere jorratzen dute, eta bertso sarituen kasuan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleen artean, Beñat Usandizaga, Aitor

Navarrea eta Xabat Unzuerearen bertsoak izan dira saria eskuratu zutenak hurrenez hurren. 5 eta 6. mailako bertso onenak, Iker Amonarriz, Iker Iturralde eta Aitana Goenaga ikasleek eginak izan ziren. Kasu honetan, aipamen berezia jaso zuten Aicha Olaiz eta Aitana Nogalesen lanek.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako dauden 1 eta 2. mailako ikasleen artean, bertso onenak Maddi Otegi, Mikel Etxarri eta Aizpea Belaskok idatziak izan ziren. Aldiz, 3 eta 4. mailakoetan, Martin Lizardi, Mikel Garin eta Jon Mujikak jaso zuten saria. Aritz Ezeizaren bertsoek aipamen berezia jaso zuten.

● tolosaldean@hitza.info

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Jaiak antolatzen hasitako festa batzordeak lehen bilerara egingo du, 19:30etan. Udaltxeko batzar aretoan izango da, eta udalak, herriko talde, eragile eta herritarrak animatu nahi ditu bertan parte hartzera.

■ **Lizartza.** Kultur Astearen barruan, Magia, sineskeria eta sorginkeria historia Euskal Herriari, Olatz Etxeberriaren eskutik, 20:00etan.

■ **Altz / Elduain.** Tolosaldeko Mankomunitatearen Birziklapen Bira Altzon eta Elduainen izango da. Altzon, birziklapen gunea egongo da arratsaldean zehar eta 19:00etan, hitzaldi tailerra izango da. Elduainen, aldiz, 19:00etan hitzaldi tailerra izango dute.

■ **Tolosa.** Berazubiko pasealekua itxi egingo dute 09:00etatik 16:00etara, bertan egiten ari diren obrak direla eta. Atletismoko pistako horma botatzeko lanak egingo dituzte.

■ **Tolosa.** Antxon Bandres Bidaierien Txokoa, *Gastrologging* proiektua izango da ikusgai. 20:00etan izango da, eta surfa eta gastronomia uzartzen ditu.

■ **Tolosa.** Musikaria Astearen barruan, Hernasax saxofoi taldearen emanaldia izango da, 19:30ean, musika eskolan.

JAIAK

■ **Anoeta.** Herriko jaietako hasiera emango zaie eta 18:55ean herriko txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute. Ondoren, txupinazoa izango da, 19:00etan. Aurten, herriaren euskarari ikasten ari diren etorkinek botako dute, eta kukuaren jai-tzeria izango da kanpai hotsekin eta danborrada izango da Loatzoko txarangarekin. 20:00etan, sardina jatea izango da plazan eta 23:00etan, erromeria izango da Ezten Giro taldearekin.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

GAURKO ESKAINTZA

Mauka
berria

Surf ikastaroa
prezio ezin hobean
Zarautzen

ZARAUZKO SURF ESKOLA
Donibane Plaza, 5
20800 Zarautz (GIPUZKOA)
Tel.: 943-01 95 07 / 656-78 52 25
www.surfeskola.com

25€

Prezioa

berria
taldea

www.mauka.eu



Motxilak salgai 15 eurotan
Kokorak: Bendea eta beitsa

Eskuratzeko deitu
943-655 695
telefono zenbakira
edo pasa HITZAKo egoitza.
(Araba etorb. 5 behea · Tolosa)